


Aukeratu proposatzen diren bi gai hauetatik **bat**:

1. gaia:

Gizakien lurra: osasun-arazoak dituzten haurrei laguntzeko erakundea.



Egoera:

“Gizakien lurra” gobernuz kanpoko erakundea da. Herrialde pobreetan osasun-arazoak dituzten haurrei laguntza ematen die. Horretarako, hemengo familiak beharrezkoak dira. Zu erakunde horretako kidea zara, eta, gutun baten bidez, familiak animatu nahi dituzu haur horiek etxean hartzera.

Egitekoa:

Irakurleei zuzendutako gutuna idatziko duzu, egunkarian argitaratzeko. Horretarako:

- Eman zure erakundean egiten duzun lanaren berri.
- Adierazi zer den familiak egin beharrekoa.
- Eman arrazoiak familiak animatzeko.

Egoerari erantzuteko, **nahi baduzu**, ondoko puntu hauek **erabil ditzakezu**:

- Herrialde pobreen gabeziak.
- Elkartasunaren garrantzia eta herritarren jarrera.

2. gaia: Telebista-saio desegokia.

Egoera:

Telebista-kate batean arrakasta handia duen saio bat ematen dute, baina, zure ustez, guztiz desegokia da. **Consumer** aldizkariak ale berezia eskainiko dio telebista-kateen kalitateari. Zu gustura ez dagoen ikuslea zara, eta, gutun baten bidez, saioarekiko desadostasuna adierazi nahi duzu.

Egitekoa:

Irakurleei zuzendutako gutuna idatziko duzu aldizkarian argitaratzeko. Horretarako:

- Azaldu nolakoa den saioa.
- Adierazi zeintzuk diren zure desadostasunaren arrazoiak.
- Proposatu egokiagoa iruditzen zaizun beste saio mota bat.

Egoerari erantzuteko, **nahi baduzu**, ondoko puntu hauek **erabil ditzakezu**:

- Telebistaren garrantzia pertsona askoren bizitzan.
- Telebistaren helburua: entretenitu, hezi, informatu...
- Telebista-kateen etorkizuna.

